
BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA EKINTZAILETZA-ENPRESA EKIMEN BERRIEN ZERBITZUEN KONTRATAZIORAKO

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren helburua ekintzailtza eta enpresa-ekimen berriak zerbitzua eskaintzea da, pertsona ekintzaileei aholkularitza emateko, ekintzailtzari buruzko sentsibilizazioari, hasierako aholkularitzari, bideragarritasun-planak egiteari, enpresak sortzeari eta sendotzeari lotutako bideragarritasun-planak eta alderdiak prestatzeko.

Kontratazio honen helburua da:

- Ekintzailtzaren oinarrizko alderdiei loturiko hasierako informazio eta aholkularitza zerbitzua ematea.
- Hasierako laguntza ematea, negozio ideiak dituzten pertsoneri banakako aholkularitza emanez, ekimen prozesuaren inguruko beharrak identifikatzeko.
- Gaitasun ekintzaile berritzaile handia duten pertsona sustatzaileen proiektuak eta profilak identifikatzea.
- Negozio ideiak dituzten pertsoneri bere enpresa plana prestatu eta aztertzeko banakako aholkularitza zerbitzuaren bidez laguntza integrala ematea. Laguntza horrek aholkularitza orokorra ematen du negozio ideia baten bideragarritasuna azterlanean eragina duten alderdi guztietan.
- Enpresa plan horiek garatu dituzten pertsona sustatzaileei enpresa eratu eta abian jartzen laguntzea. Laguntza bezala enpresa sorrerarako euskarri teknikoa ulertuz.
- Proiektu berrien kanpoko finantzazioa aktiboki sustatzea, finantzaketa bilatzen laguntzeko planteamendu integrala eskaintzeko.
- Garapen Agentziarekin lankidetzan Ekintzailtza eta barnekintzailtza ekosistema garatzeko prozesuetan parte hartzea.

Zerbitzu horren bidez laguntza teknikoa eman nahi da, gaitasun ekintzaile handia duten pertsona ekintzaileen proiektuak eta profilak aholkatu, tutorizatu eta garatzeko.

2. KONTRATUAREN IRAUPENA

2021ko urtarrilaren 1ean hasiko da eta 2021ko abenduaren 31an amaituko da, beste urte betez luzatuz, beti ere kontratazio organoak horrela adosten badu.

3. AHOHKULARITZA ZERBITZUAREN PREZIOA ETA ORDAINTZEKO MODUA

Kontratuaren gehienezko prezioa 50.000€tan ezartzen da, gehi dagokion BEZ-a.

Fakturazioa hilerokoa izango da.

4. ZERBITZUAREN OINARRIZKO BALDINTZAK

Kontratazioaren xede den zerbitzuak honako hauek izango ditu ardatz: ekintzaitza eta enpresa ekimen berriak zerbitzua ematea, pertsona ekintzaileei bideragarritasun planak eta ekintzaitzaren sentsibilizazioarekin, hasierako aholkularitzarekin, bideragarritasun-planak prestatzearekin, enpresak sortzearekin eta sendotzearekin lotutako alderdiak prestatzeko aholkularitza emateko.

- Zerbitzua jasotzea zuzenduak dauden pertsonak:
 1. Enpresa ekimen edo eta negozio ideiak berriak dituzten pertsonari eskainiko zaie zerbitzua, baldin eta Goierriko eskualdean badute egoitza.
 2. Zerbitzua dagoeneko eraikita dauden enpresei zabalduko zaie baita ere, beti ere hauek Goierriko bailarako ehun industrialari balio erantsia gehitzeko lan larro berriak aurkezten badituzte.
- Zerbitzuen zehaztapena:

Zerbitzua hasierako aholkularitza, bideragarritasun plana egiteko laguntza eta enpresa bat sortzeari lotutako alderdi teknikoari buruzko zalantzak argitzean datza. Zehazki, enpresa esleipendunak hau egin beharko du:

1. Pertsona ekintzaileei beren negozio eredia definitzeko beharrezkoak diren gogoeta eta analisiak egiten laguntzea, aholkularitza estrategiko, komertzial eta plangintza ekonomiko eta kudeaketaren bidez. Kasu horretan, espero den azken produktua bideragarritasun-plana bera izango da. Azaldutako lan eredia proiektu bakoitzari egokitu beharko zaio, espero den malgutasuna eta pertsonalizazioa bete ditzan.
2. Pertsona ekintzaileei informazioa eta jarraibideak ematea, pertsona ekintzaile gisa garatzeko.
3. Kanpoko eragileekin, sektoreko eta merkatuko adituekin (finantza-entitateak, erakundeak, etab.) bilerak eta kontsultak egitea.
4. Goiekirik izendatutako pertsonarekin lanaren koordinazioa, jarraipena eta asteroko deskarguak egitea.
5. Pertsona ekintzaile bakoitzarekin egindako lanaren laburpena eta ondoriozko bideragarritasun plana bilduko dituen azken dokumentua prestatzea. Agiria Goiekiren komunikazio jarraibideen eta eskuliburuaren arabera prestatu beharko da.
6. Enpresa ekimen berrien zerbitzuak zehaztutako prozedura betetzea (datu-basea, kontsulta fitxa, pertsona ekintzailearen fitxa, plan/proiektuen orria, etab.).
7. Aholkularitza enpresak erabiliko duen enpresa planaren eredia Gipuzkoako Foru Aldundiaren BIDERAGARRITASUN PLANA izango da. Eredua aurkezpen erabilgarriak egiteko balio behar du, inbertsore edo kanpoko finantzazio-programei aurre egiteko.
8. Bideragarritasun plana amaitzean lana bukatutzat emango da.

- Zerbitzua emateko hizkuntza:

Euskararen erabilpena arautzeko oinarrizko legean jasotzen den hizkuntza-arloko herritarren eskubidea bermatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan eskaini ahal izango dira zerbitzuak, pertsona ekintzaileak nahi izanez gero. Horretarako, enpresa lizitatuak bi hizkuntzetan adituak diren giza baliabideak izan beharko ditu, bai ahoz bai idatziz. Baldintza hori dagokion titulazioak justifikatuko du (Europako esparruko C1 mailaren baliokidea). Nolanahi ere, Goiekik, baldintza hori aipatu titulazioarekin egiaztatu ezin badu, behar den gaitasuna aztertu eta baloratu ahalko du elkarrizketa edo proba baten bidez.

Pertsona ekintzaileen eskura dauden material eta emangarriei dagokienez, bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira nahitaez.

Osagarri gisa, eta Euskal Autonomia Erkidegoan ofizialak ez diren beste hizkuntza batzuen kasuan, Europar Batasuneko estatu kide bateko beste hizkuntza ofizial batzuetan arreta eta lan egiteko aukera baloratuko da.

- Zerbitzua gauzatuko den lekua:

Zerbitzua Goiekik dituen instalazioetan egingo da eta behar bezala hornituta egongo dira.

Nolanahi ere, enpresa esleipen-hartzailea arduratuko da instalazioak behar bezala erabiltzeaz, eta honako ardura hauek hartuko ditu bere gain:

- Instalakuntzen irekiera eta itxiera.
- Hauetara sartzen direnen kontrola.
- Instalakuntzen erabilpen egokia.

Zerbitzua astelehenetik ostiralera eskainiko da, Goiekiko ordutegian eta eskatzen diren edo sortzen diren beharren arabera.

Zerbitzuak berekin dakar frogagiriak aurkeztea, hala nola, emandako zerbitzuaren egiaztagiria duten orri sinatuak, onuradunen egiaztagiria (NANA edo antzekoa) eta hileko faktura.

Esleipendunak erantzukizun zibileko aseguru bat izan behar du, jardueraren ondorioz pertsonen eta ondasunen gerta dakizkiekeen istripu edo kalteak estaltzeko.

Enpresa esleipendunak zerbitzuak emateko ordu eta baliabide erabilgarriak izan beharko ditu, Goiekik ezartzen dituen erritmo eta eskakizunetara egokituta.

Enpresa esleipendunak Goiekiren izenean egingo du zerbitzua, eta ezin izango du enpresaren publizitaterik edo lan komertzialik egin, ez eta Goiekiren zerbitzua bera erabili ere enpresa adjudikaziodunaren mesedetan.

Goiekik bere informazio sistema dauka erabiltzaileen datuak eta emandako zerbitzuak kudeatzeko. Sistema horretan, enpresa ekimen berrien zerbitzuari lotutako jarduera guztiak nahitaez jaso behar dira. Horretarako, enpresa esleipendunak sistema erabili beharko du datuak sartzeko eta egindako ekintzak islatzeko metodologia gisa. Sistemaren datuak sartzea eta kudeaketa baldintza tekniko osagarri bat da, zerbitzua emateari atxikia eta fakturatzen ez dena. Horretarako behar den oinarrizko prestakuntza emango du Goiekik.

Ordizia, 2020ko abenduaren 1a



Izenpetua: Iker Galparsoro Lasa

Zuzendari Orokorra